

Bea Zabalondo, EIZIEko lehendakari aukeratu dute aho batez

2007/02/20

Joan den larunbatean, hilak 17, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak **Bea Zabalondo** irakaslea aukeratu zuen aho batez elkarteko lehendakari, Zarautzen egindako bileran. Beak bi urterako hartu du ardura.

Bea Zabalondo **irakaslea** da HUHEZIn, eta bertan **Informazio eta Komunikazio departamenduko burua** da. Aurretik, lan handia egin du itzultzaile moduan; baita zuzentzaile gisa ere. Une honetan, Beatriz Zabalondo **doktore tesia** prestatzen ari da, bikoizketaren gainean.

